

NATURA

Milioi bat espezie desagertzeko zorian jarri ditu bakar baten jarduerak

📁 **INGURUMENA** / France-Presse

Une honetan, milioi bat espezie daude galzorian beraien habitata suntsitu dugulako. Espezie horietako azken kideak hiltzean, erremediorik ez da izango.

Gizakiok naturaren beharra dugu bizirik jarraitu ahal izateko, arnasa hartzeko, jateko, edateko, berotzeko, babesteko, sendatzeko... NBE Nazio Batuen Erakundeko adituek joan den astelehenean margotu zuten panorama ikusita, belaunaldi berriei etorkizun iluna eta beldurgarria utzi diegula aitortu behar.

Planeta berea eta amaigabea izango balitz bezala jokutzen jarraitzen du gizakiak. Naturak ezin dio guk ezarritako erritmoari eutsi eta dagoeneko amildegira iristen ari garela ohartarazi digute adituek. «Gizartearen aldaketa sakona» ezinbestekotzat jotzen dute bioaniztasunari eutsi ahal izateko.

«Geure ekonomien zutabeak beraiek higatzen ari gara, geure ogibideak, elikagai segurtasuna, osasuna, bizi kalitatea... Mundu osoan gaine-

Bulgarian herritarrek iaz salbatutako hartz txikia, joan den asteburuan.
Hristo VLADEV | AFP

ra», ohartarazi zuen Robert Watson IPBES Biodibertsitate-ari eta Ekosistema Zerbitzuei buruzko Gobernuen arteko Zientzia eta Politikaren Plata-

formako presidenteak. 150 adituk, Unai Pascual Ikerbasqueko BC3 zentroko irakaslea barne, beste 310 egileren laguntza izan dute, gai honi buruz inoiz egin den ikerketarik zehatzena egiteko. Hiru urtez aritu dira lanean eta azken 50 urteotan eman diren aldaketak aztertu dituzte.

Bioaniztasuna galtzen ari gara, inoiz baino bizkorrago gainera, baina txostena egin duten adituek itxaropenik badeute oraindik, egoera beldurgarri honetatik ateratzerik badagoela diote, «baina bakarrik aldaketak berehala eta maila guztietan egiten badira», Robert Watsonen hitzetan.



Lehorrean zein itsasoan eragin du suntsiketa gizakiak. Gizakion jarduerak «modu larrian» aldatu ditu lurren %75, eta itsasoaren %66 ere kaltetu du dagoeneko. Deforestazioa, nekazaritza intentsiboa, gehiegizko arrantza, arrapaladako urbanizazioak, meategiak... Beste espezieen lekua hartu dugu eta emaitza kopuruetan jarri dute IPBESeko adituek: zientzialariek kalkulatu dute zortzi milioi espezie dagoela gaur egun planetan, abereak zein landareak, eta milioi bat, guztien %12,5, galzorian daude eta datozen hamarkadetan erabat desagertu daitezke.

Tokian tokiko lurreko espezieen %20 desagertu egin dira dagoeneko, gehienak 1900tik hona. Anfibioen %40, koralen %33 eta itsasoko ugaztunen herena baino gehiago desagertzeko mehatxupean daude. Intsektuei dagokienez, espezieen %10 desagertuko direla kalkulatu dute zientzialariek. Ornodunak ez daude hobeto: gutxienez 680 espezie desagertu egin dira XVI. mendetik. Azken 150 urteotan, koralezko uharrien ia %50 galdu ditugu. Aldi berean, espezie inbaditzaileak ikaragarri hedatu dira leku askotan, %50era iritsiz hazkundera 21 herrialdetan.

Industria iraultzaren garaian baino askoz ere baso gutxiago dugu gaur egun: %32 gutxiago lurrean hartzen duten azaleraren arabera. Ez da harritzekoa, nekazaritzak erabiltzen dituen lurren ia erdia deforestazioari esker sortu baitira. Gainera, gizakiok oihan primarioak ustiatzen jarraitzen dugu: horien azalera %7 murriztu da 2000 eta 2013 artean.

Orain arteko bilakaera oso kezagarria da: 2000. urteko



neurketen arabera, gizakiok munduko zingiren %80 erabat suntsitu ditugu. Gainera, gaur egun lurraren heren bat nekazaritzak erabiltzen du. Ingurumena arrantza tradizionalak baino askoz gutxiago errespetatzen duen arrantza industrial, itsaso gehienetara iritsi da eta 2015ean egindako

Erle bat lanean, Kolonia Alemaniako hirian.
Oliver BERG | AFP

ikerketa baten arabera, kasu askotan ontzi horiek arrain gehiegi hartzen dute, baimendutako kopurua baino gehiago. Oro har, urtean gizadiak 60 bilioi tona baliabide natural ustiatzen ditu, baliabide jasangarriak batzuk, ez jasangarriak besteak. Adituen ara-

bera, kopuru hori bikoiztu egin da 1980. urteaz geroztik.

Aditu horiek esandakoa bat dator zientzialari askok aspaldi honetan adierazitakoarekin. Txostenak hitz horiek erabili ez baditu ere, begirale batek baino gehiagok «iraungipen masiboak» ekarri ditu gogora. Egungoa litzateke «seigarren iraungipen masiboa», eta lehen aldiz gizakia da txikizioaren erantzulea. Mark Tercek Nature Conservancy gobernuz kanpoko erakundeko presidenteak nabarmendu du, hala ere, egun abian dugun «iraungipen masiboa» saihesteko, edo mantsotzeko behintzat, moduan garela oraindik, «erabakitasunez une honetan bertan modu egokian jarduten badugu».

Tankerako mezua plazaratu du Watsonek: «Ez da beranduegi, baina oraintxe bertan hasi behar dugu jardunean,

«HELBURUA BIZI KALITATEARI EUSTEA DA, EZ HAZKUNDE EKONOMIKOA»

«Hazkunde ekonomikoaren dogma albo batera utzi behar da sistema ekonomiko jasangarri bat lortu ahal izateko». Eduardo Brundizio txostenaren egileak France Presse agentziari esan dionez, «helburuak bizi kalitateari eustea izan behar du, ez hazkunde ekonomikoak». IPBESeko adituek makina bat proposamen egin dituzte beren txostenean: gehiegizko arrantza murriztuko luketen neurri eraginkorrak ezartzea, esaterako.

Gizakiak naturarekiko menpekotasuna duenez, geure espeziea ere desagertzeko zorian egon daitekeela pentsa daiteke. «Ezetx esango nuke, ez behintzat epe laburrean –esan du Josef Settele egileak-. Baina helburua ez da soilik bizirautea». Izan ere, bizi kalitateak behera eginez gero, biztanle pobrenei tokatuko zaie egoerarik txarreana. Eta horiekin batera, naturarekin bat eginda bizi diren jatorrizko herriei, indigenei alegia.

gure gizarteari aldaketa sako-
nak eraginda». Bere iritziz, lor-
tu beharreko lehen helburua
bioaniztasun galera eragiten
duten «motorrak» mantsotzea
litzateke. Izan ere, gizakiontzat
klima aldaketa bezain meha-
txagarria da biodibertsitatea
galtzea, hori ulertzea asko kos-
tatzen bada ere.

SUNTSIKETAREN MOTORRAK

Bioaniztasuna kaltetzen du-
ten «motor» horien artean lu-
rren erabilera ageri da lehen
postuan, nekazaritzak eta de-
forestazioak espezie asko jarri
baitituzte galzorian, beren ha-
bitata suntsituta. Bigarren
postuan ipini dute adituek ba-
liabideen ustiapen zuzena
(arrantza eta ehiza). Eta gaur
egun horrenbestetan aipatzen
dugun klima aldaketa hiruga-
rren tokian jarrita dago, lau-
garren lekuan dauden kutsa-
durak eta bosgarren tokiko
espezie inbaditzaileak baino
kaltegarriagoa delakoan. Edo-
nola ere, txostenaren egileek
gogorarazten dute sailkapen
hori aldatzen ari dela, eta kli-
ma aldaketak gora egingo
duela bertan fenomeno ho-
rren aurka ezer egin ezean,
beste faktore horien kaltega-
rritasuna larriagotzeaz gain.
Hori bai, adituek eranstean du-
tenez, negutegi efektua eragi-
ten duten gasen isurketa mu-
rrizteko hartzen diren neurri
batzuek naturari sekulako
mesedea egin diezaioke.

Gizakiok zer jaten dugun al-
datzeak sekulako garrantzia
dauka bioaniztasunari eutsi
nahi badiogu. Demografoek
aurreratzen dute planetak
10.000 milioi biztanle izango
dituela 2050ean, eta horiei
guztiei modu jasangarrian
ekoiztutako elikagaiak emate-
ak erabateko aldakuntzak exi-
jitzen dituela nekazaritzan:



Ezkerreko argazkian,
Zeelanda Berriko kakapu
bat. Eskuinean,
Erromako zoo-ko
flamenko bat bere
kumea elikatzen.
AFP

agroekologia zabaltzea eta ura
era egokian kudeatzea, kasu.
Baina nekazaritza-eredua al-
datzea ere ez litzateke nahi-
koa izango, kontsumitzaileen
ohiturak ere aldatu beharre-
koak baitira: alferrik galtzen
diren produktuak saihestu be-
har dira eta, batez ere, dieta
aldatu, haragi gutxiago jate
aldera. Hori bai, IPBESek egin
duen testuak ez du haragirik
ez jateko zuzenean esaten, se-
guru asko haragia ekoizten
duten herrialdeen eraginez.

**Bioaniztasuna kaltetzen duten «motorren»
arteak lurren erabilera ageri da lehen
postuan, nekazaritzak eta deforestazioak
espezie asko jarri baitituzte galzorian**

**Adituek itxaropenik badute oraindik, egoera
beldurgarri honetatik ateratzerik badagoela
diote, «baina bakarrik aldaketak berehala eta
maila guztietan egiten badira»»**



JOSU JON IMAZ, PERTSONA KALTEGARRIENEN ARTEAN

Josu Jon Imaz EAJko Euzkadi Buru Batzarreko
lehendakari ohia eta egungo Repsol konpainiako
presidentea ageri da Jordan Engel kartografoak egin
duen munduko pertsona kaltegarrien zerrendan.
Klima aldaketaren erantzukizunik handiena duten
100 enpresa eta horien arduradun nagusiak
jasotzen dituen mapa egin du The Decolonial Atlas
webguneak, «Argia» kazetak jakitera eman duenez.

Klima aldaketaren arduradun nagusiei izen-
abizenak jarri dizkien mapak gure planeta hiltzen
ari direla dio, azken hilabeteotan Greta Thunberg
suediar nerabeak esan izan duen moduan.
Klimaren alde eta agintarien jarreraren aurka, bere
herrialdeko Parlamentuaren aurrean protesta
egiten hasi zen bakar-bakarrik Thunberg, eta bere
jarrerak beste gazte asko inspiratu ditu. «Zuek
ederki asko dakizue zeintzuk diren sakrifikatzen
ari zareten balore ordainezinak», esan zien
britainiar parlamentariei ganberara gonbidatu
zuten batean.

Espezie asko desagertzen ari dira gizakion
eraginez, eta klima aldaketarekin ere gauza bera
gertatzen da. Errealitate beraren bi aurpegi dira.